


Baleike

Zumaiaiko herri aldizkaria. 22. zenb. 1996ko martxoa. 100 pzta.



Festak

**Ihauteriak
argazkitan**


Elkarrizketa

**Joxe Mari
Azkue,
Mexikotik
bueltan**

Ze berri?

**Baleikek
1996an 98.000
pezetako galera
izan du**

Zumaiako Fototekak
utzitako argazkia




LEHEN ERE BAI!

Garai batean ere elurra egiten zuen Zumaia aldean. 1936 inguruko argazkia da honako hau. Kuriosoa da nola Talai-Mendi elurrik gabe egonda etxe guztietako teilatuak, baita Torre-Berrikoa ere, zurituta dauden. Atzealdean ez da eskoilerarik ageri, eta Askizu inguruak Pirineoa dirudi.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Argitaratzailea



Zumaiako Udalak diruz
lagunduriko aldizkaria



BALEIKE

HERRI ALDIZKARIA

Foronda kultur etxea

tfnoa: 86 10 56

faxa: 861742

argitaratzailea
**ZUMAIAKO
GAZTE
BATZORDEA**

Ian taldea

Iratxe Aizpurua

Esther Martinez

Eneko Dorronsoro

Xabier Azkue

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

G.E.G., Natur taldea,

Miriam Romatet, Aintzane eta

konpainia, Imanol Manterola,

Itxaso Urruzuno, Txomin,

Dani Carballo, Josu Egaña eta

Arantxa Eizagirre, Luis Mari

Aizpurua, e.a.

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tirada: **800 ale**

Lege gordailua: **SS-405/94**

BALEIKEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Festak
Ihauterietako argazki onenak 8. orr.



Kirolak
Krosa gainean dugu.....24. orria



Elkarrizketa
Joxe Mari Azkue
"Kanta". 13 orr.

Eta portadan, **Zumaia zuriz jantzia 18. orria.**

Bekokalean korrika

Xabier Azkue



Euskal Herria. Asteguna. Gaueko 9:32. Musika doinu ezagun batek programa baten hasiera iragartzen du. 500.000 lagun kaxa tuntunaren aurrean. Gure etxean bakarren bat ere bai. Ni behintzat ez nau berehala harrapatuko *sugetzar* horrek. Ez diot nere bihotza eskeiniko, ez dut debaldeko malkorik isuriko. Badakit bere pozoia ez dela hilgarria, baina ez ditut horrelako animaliak maite.

Ordu egokia da lasai-lasai afaltzeko, lantxo batzuk aurreratzeko, liburutxo bat hartu eta patxada ederrean irakurtzeko. Baina egun hauetan ez dut horrelakorik egiten. Malla gorriak eta zapatilak jantzi eta saltaka egitera joaten naiz. Izerdiarekin batera eguneko kezka, buruhauste eta tentsioak kanporatzen ditut. Bekokalea ia hutsik dago, ez da harritzekoa Goikoa dagoen bezala egonda. Krosean zitzu bizian ikusten nauzuenean badakizue zerk motibatu nauen: Joxe Mari, Maria Luisa eta konpainiak.

NEWS AT TEN

Idatzi nahi nituzke bertso bat edo bi Londrestik bidaliak Uranga jaunari Ekintza urri eta palabra ugari hutsala ez al zaio iruditzen honi ejenplorikan gabe predikatze hori.

Baleike hartu eta nago harrituta joan den otsaileko kronika letuta haizerik gabe ezin putzegin turuta zein izango ta, Mofli... mekauen la puta ziur idatzi dula erdi kargatuta.



Londoneko enbiado espaziala: JON BRAUN lankidea

Alkatearen erantzun irekia...

Ion Albizuk zuzendutako gutuna arreta haundiz irakurri dut, eta erantzuteari ekingo diot, bide batez, egiten dizkidan galdera askoren agerpena ematen saiatuko naiz, horietako zenbait galderak Ionek izugarriko informazio eza duela adierazten baitidate. Oso ondo ulertzen ez dudana zera da: informaziorik gabe nola egiten dituen zenbait adierazpen, hala nola, "Udal hau demokratizatu egin beharko zenuke" edo "erabaki sekretuak hartzen". Baina hori beste kontu bat da.

Ionek benetan nahi duena informazioa dela suposatuz, eta ez bestelako zerbait, oinarrian berarekin ados nagoela esan behar dut, oso zaila gertatzen baita hiritarrei eguneroko ihardueraren berri ematea.

Asmatu egiten du Udaletxean sortzen den informazioa hiritarregana zabaltzeko eraren bat ezarri beharko litzatekela esaten duenean. Baina zailtasuna "nola egitean" datza, inork ez dezan ulertu diru publikoz egindako Gobernu Ekipoaren propaganda dela. Aurreko legealdian saiatu ginen. Asko eztabaidatu ondoren, ez genuen "nola?" asmatu.

Dena dela, Plangintzari buruzko akordio urbanistiko guztiak prentsan agertzen dira, eta beste ekintzen berri ere prentsarara, irratiara,...bidaltzen saiatzen gara. Beharbada ez da nahikoa, gehiago saiatu beharko ginatke. Hortan gaude.

Ionek asmatu egiten du Zumaia bezalako Udal baten aurrekontuarekin mirariak egiterik ez dagoela esaten duenean. Horregatik ez dira gutxi izan azken urteotan Eusko Jaurlaritzan (3.293 milioi lortu dira), Foru Aldundian (75) eta Madrilgo Gobernuaren aurrean (317) egin ditugun gestioak, eta hauei kirol portuko 1.400 milioi gehitu behar zaizkio.

Hau horrela izanda, nola esan daiteke "goiko instituzio hauetara gutxi jotzen duzu edo bestela ez zaituzte haintzat hartzen"?

Foru Aldundiak Zumaiako Udalak eskatutako hiru proiektuetatik (igerilekua, Oikiako frontoia eta futbol zelai berria) ez zuen bat bera ere sartu 1994-1997 urteetako Kirol Ekipamendu Plangintzan. Beraz, kirol ekipamenduetarako ez dugu ezer jasoko, Oikiako frontoia eta igerilekua geure kabuz egin beharko ditugu. 1996rako aurrekontuetan, **Oikiako frontoirako** 25 milioi dauzkagu, eta **igerilekuko** proiektua berregokitzeko 6 milioi (1997-1999 urteetan gauzatzeko asmoa dugu).

Kirolentzat laguntzak oinarritzko kirola bultzatzeko asmoarekin ematen dira, eta herriko elkarte desberdinei ematen zaizkie laguntzak, horretarako erabiltzen diren irizpideak lizentzi kopurua, iharduera eremua, tituludun entrenatzaile kopurua, egindako irteerak... direlarik. Diru-laguntzak jasotzen dituzten herriko elkarteak hauek dira: Pulpo S.D., Zumaiako F.T., Itxas Gain, Aita Mari A.E., Zumaiako K.E., Zumaiako txirrindulari elkarte, Saskibaloi taldea, Inda Mendi M.B.

Benetan uste al du Ionek Udalak ordaindu behar dituela kirola egiten dutenen galtzerdiak, zapatilak eta gainontzeko erropa?

Foronda konpontzeko inbertsio handiak egin dira urte hauetan: teilatuaren konponketa, fatxadaren iragazkaizketa, ... Momentu honetan Udalak Mankomunitatearen bidez INEMekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz "Lanbide Etxea" deituriko programa aurrera eramaten ari da. Programa honek bi helburu ditu: alde batetik Forondako 2. solairua berritzea eta Parke Botanikoa sortzea, eta bestetik, langabezian dauden 20 gazteri formakuntza ematea.

Liburutegiari buruz bi puntu azpimarra daitezke:

1. Liburutegi publikoak, aipaturikoak baino jende mota askoz handiagoa babestu behar du. Honetaz gain

esan behar dugu gure kasuan **ertainetako ikasleek beren eskakizun akademikoak betetzeko adinako bibliografia badutela**, gaurkotua eta ia beti euskaraz eta erdaraz. (Euskarazko bibliografia apurak baimentzen duen neurrian gutxienik). Hala nola entziklopediak edo monografiak. Unibertsitarien kasuan esan dezakegu Zumaia bezalako herri bateko liburutegi publikoak nekez lor dezakeela beren eskaera bibliografikoak asetzea, nahiz eta oinarri-oinarrian bada ere saiatzen garen.

2. Liburuak inolaz ere ez dira loteka erosten (entziklopedia edo erreferentzi obra handiren bat lote bezala kontsideratzen ez bada behintzat.) Batetik, eta jendearen eskakizunek honetara bultzatzen gaituztelako, **literatura mailan (euskaraz eta gaztelaraz) hilero merkatuan agertzen diren obra nagusienak gureganatzen aritzen gara**. Bestetik, merkatuan agertzen diren erreferentzia obretara adi egoten gara eta ahal dugun neurrian eskuratzen ditugu. Azkenik, jakintza arlo desberdinetan dagoen bibliografietatik erosketak egiten saiatzen gara. Guztietan erosketa kriterio nagusiak hauek dira: A) Liburutegiaren gabeziak kontutan hartzen ditugu, erabiltzaileen eskaera betegabeakoak kontutan izanik. B) Produktuaren gaurkotasuna eta kalitatea kontsideratzen ditugu. D) Euskera eta gaztelera arteko oreka mantentzen saiatzen gara eta azkenik E) Aurrekontuek baimentzen diguten mailan erosketak gauzatzen ditugu.

Haur Liburutegi bat ere badagoela beren eskakizun propioekin aipatu behar da eta kuriositate bezala Agatha Christieren bilduma osoa donazio bat izan dela eta bestetik helduen liburutegian behintzat ez dugula Mortadelo eta Filemonen bildumarik (nahiz eta komiki sekzio bat badugun, oso erabilia bestalde).

Liburuak erosteko urtero egoten dira partida bereziak (azken urtetan 5 milioi



HARAGITIGIKO, 15 - 1. TEL: 86 21 16

kukutz
PUBLIZITATEA-SERIGRAFIA



- *KAMISETAK
- *KAPELAK
- *TXISKEROAK
- *TXANDALAK
- *PAPELEZKO
- *POLTSAK

Narrondo 8, 2. esk Tfnoa: 860569



Amertze
Foto

Erribera Kalea, 6
Telefonoa: 86 17 07
Fax: 86 17 07
20750 ZUMAIÀ (Gipuzkoa)

inguru). Liburutegiaren informatizazioa dagoeneko badago. Bi liburutegiak profesionalki gestionatzen dituzten langileak hartu dira: liburuzain bat eta laguntzaile bat. Bestalde, Zumaiako Artxibo Historikoa egokitu eta informatizatu da.

Aita Mari zinea martxan jartzeko, gaztetxoentzat **Ludoteka, H.H.I.** (Helduen zentrua) sortzeko, Aldundiarekin eta Institutuarekin batera ikastaroak antolatzeko, ... lan handia egin dugu.

Badira zazpi urte **Udal Eskola Kontseilua** sortu zela. Bertan herriko ikastetxe guztiekin, denontzat interesa duten programak aurrera ateraz: igeriketa kanpaina, dirulaguntzak liburuak erosteko eta barnetegietara haurrak/gazteak eramateko, eta garrantzizkoena Porrot Eskolarrari aurre egiteko, arrisku handiena eduki dezaketen gazte eta familiekin lana eginez.

Mankomunitate mailan lan gogorra egiten ari gara **lanbide hastapenaren** alorrean: Lanbide Hastapeneko Tailerrak, Lanbide Etxea, iraupen luzeko langabetuentzat programak.

Beti ere INEMekin sinatutako hitzarmenen bitartez. Ehundaka gazte pasa dira dagoeneko programa desberdinetatik, etab.

Guzti hau ez al da ba gazteriaren alde lan egitea? Aurrera eraman dugun prebentzio lan ixil horrek ez du nonbait ezer balio "Gaztetxe" bat ez egitekotan... Tamalgarria gertatzen da zenbait gaztek "gaupasak", tabernen ordutegiak edo txoznak hartzea argumentu gisa (kritika politikarako). Planteamentu horiek serioak al dira?

BALEIKEren argitalpena finantzatzen dugu (1995ean 355.000 ppta) eta informazio objektiboa eskeini beharrean, Udal hau zuzentzen duten arduradunei ahal duten "kaina" gehiena ematen saiatzen dira, oposizioan dagoen indar politiko bakarrari "kantxa" emanaz, HB-ri. Hala ere, Gazte Batzordeak hilero-hilero aldizkari hau ateratzeko egiten duen lana baloratzen

dugu.

Beraz, zer dela eta esaten du Ionek Udaletxea demokratizatu behar dugula? Zer dela eta Udalaren eta gobernu erantzukizunak ditugunon irudi faltsu hori zabaltzeko asmoa?. Gauzak ondo egiten dituen alderdi bakarra oposizioan dagoena dela sinestu behar al dugu?

Azkenengo urtetan, ahal den neurrian, **herriko industria** indartu nahian gabiltza. GAS-EUSKADIrengandik industriarentzat gas hornidura lortu dugu. Lan ikaragarria egin dugu, Ionek ondo dakien bezala, Estazioko industri poligonoa ADU-21 eta 3. Sektorea garatzeko Kooperazio sistemaren bitartez, Babes Ofizialeko etxebizitzak eta industriak bultzatzeko. Orain Gorostiaga poligonoarekin hasi nahi dugu.

Alde Zahara birgaitzeko Egitasmo Berezia martxan jarri dugu, auzotarren iritzia, enpresa berezien bidez jasoz. Beduako Plangintza Berezia, Kirol portua, etab.

Guzti horiek Zumaia 2005 Plangintza Estrategikoarengan atera ziren ondorioak direlako. Dokumentu hori lau hilabetez eztabaidatu zen Zumaiako 200 lagun artean, dudarik gabe, urte askotan zehar gure herrian emandako eztabaida handiena eta zabalena (nahi izan zuten guztiok parte hartuz). Ez al zuen Ionek dokumentu honen berri? Publikoa da eta bere esku dago.

Ez al du ezer entzun **Gizarte Zerbitzuei** buruz? Pobreziaren aurkako planak (6 milioi), Etxez Etxeko Laguntza (15 milioi), Familiaren eta neska-mutilen tratamenduak (4,5 milioi), zenbait erakundeei dirulaguntzak (2 milioi), aholkularitza batez ere emakumei, Zaharren Egoitza eta abar.

Puntu honetan **Sahara herriarekin** dugun elkartasuna aipatu behar da. Aurreko urtean, hau da 1.995ean, dexente izan ziren herri honen alde antolatu ziren ekintzak: Herriko talde desberdinei inplikazioa eskatuz, Tinduf-era antolatu zen bidaian parte hartuz (6 lagun), ikastetxei

eta oro har herri osoari informazioa zabalduz (ez ziren hamar lagun elkartu), kanpaina desberdinetan parte hartuz (mantak, eskolarako materiala, atun latak).

Berriro diot, zer dela eta "ez da demokratikoa Udaletxe hau"?

Udal bateko alkateak, Ionek ez baldin badaki ere, erantzukizun pertsonalak dauka eta Gobernu Batzordeko eta Plenoaren akordioak betebeharra, txosten teknikoen arabera hartzen direnak, aurrez, dagokien Batzorde Informatiboetan jakinaraziz eta eztabaidatuz.

Beraz, iharduera honetan ez dago sekretismoarik. Udaletxe honetan, Batzorde Informatiboan edukiak ere aktetan jasotzen dira.

Demokraziari dagokiona gehien-goaren nahia onartzea da eta momentu honetan, Udal honen gobernu hiru alderdiaren esku dago: EAJ, PSOE eta EA. Hauek, gobernu programa bat sinatu dute, udal hauteskundetan aurkeztutako programetan oinarritutakoa.

Benetan espero dut idazki honetan eman dudan informazio laburra baliogarria gertatzea Ionentzat. Dudarik gabe gauza asko dugu egiteko, eta kritika ezezik kooperazioa ere behar dugu egunetik egunera gure gizartea pixkanaka hobetzeko. Asmo hau izan zen niri, eta nire moduan Udaletxean lanean ari diren askori, mugitu gintuena.

Begirunez

RIKARDO PEÑA
ZUMAIKO ALKATEA

OHARRA:

IDATZI HAU LABURTUA ETA
MOLDATUA DAGO, TAULA
BATZUK FALTA BAITZAIZKIO.

OSO-OSORIK IRAKURRI
NAHI DUENAK FORONDAN
ESKURA DEZAKE KOPIA BAT.

BELARDENDA SIWA



Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012

Huntza, o.k.



lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIKKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA



Mekanika eta
karrozeria

Axular ibiltokia, 14 86 00 70
Zumaia

“Baleikeren argitalpena finantzaten dugu (1995ean 355.000 pzta) eta informazio objetiboa eskeini beharrean, Udal hau zuzentzen duten arduradunei ahal duten “kaina” gehiena sartzen saiatzen dira, oposizioan dagoen indar politiko bakarrari “kantxa” emanaz, HBri. Hala ere, Gazte Batzordeak hilerok hilerok aldizkari hau ateratzeko egiten duen lana baloratzen dugu” (Ricardo Peña)

Baleikek alkateari eta Zumaiari

Ricardo Peñak bere *“Alkatearen erantzun irekia...”* idatzian Baleikeri buruz esandakoak ikusita, hainbat puntu zehaztea beharrezkotzat jo dugu:


1.- Ez dugu ulertzen zer dela eta kritikatu behar duen gure aldizkaria Jon Albizuri erantzuteko. Kritikak onartzen ditugu, baina gogorarazi nahi diogu, gure lehen zenbakitik Baleikeren hirugarren orrialdean azaltzen den premisa: *“Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian azaldutako iritzi eta esanen erantzukizunik”*.

2.- Ez da egia Zumaiako Udalak *“Baleikeren argitalpena finantzaten”* duenik. Baleikeren 95. urteko diru irteerak 2.071.000 pezetakoak izan ziren, eta Udalak emandako DIRULAGUNTZA 355.000 pezetakoa da, hau da, gastu errealaren %17a. Baleike gudan beraien konfidantza jarri duten zumaiar askoren laguntza eskergarriaz finantzaten da. Hala ere, egia da Udalak hainbat baliabide eskeintzen dizkigula, hala nola, Forondan lokal bat, telefonoa, argia, eta abar.

3.- Ez da egia Udala *“zuzentzen duten arduradunei ahal duten kaina gehiena ematen saiatzen”* garenik. Beti saiatu gera ahalik eta informazio objetiboena ematen, eta edozein gairen aurrean udaletxera (eta askotan

zuzenean alkatearengana) jo dugu informazioa kontrastatu asmoz.

4.- Gogorarazi behar diogu alkateari, Baleike kalean dagoen bi urte hauetan ez dugula inoiz udaletxetik prentsa oharrik jaso (Gizarte Zerbitzukoak eta Kulturakoak ezik). Ondorioz, udaletxean eta herrian gertatzen denaz beste iturri batzutatik informatu behar izaten dugu. Hala ere, udaletxean laguntza informatibo handia aurkitu izan dugu galdezka joan garenean, baina hori beti *“a posteriori”*.



5.- Informazioaren objetibotasunari dagokionez, gogorarazi behar diogu Ricardo Peñari, Baleike sortzerakoan udaletxera laguntza eske joan ginenean jarri nahi izan ziguten baldintza: argitaratuko genuen informazioa kontrolatuko lukeen udal zentsore bat Baleikeko taldean egotea eskatu zitzaigun. Guk honi ezetz esan genion, eta hala ere udalaren laguntza izan dugu; baina, hori al da objetibotasunaren alde egotea?

6.- Guk ez diogu inongo alderdi politikori *“kantxa”* ematen. Baleike HBrekin binkulatu nahi izatea, gure aldizkariak dituen 2000 irakurleak eta beraien negozioen publizitatea egiten dutenak HBko kide direla esatea kontsideratzen dugu, eta hori neurrigabekeria eta lekuz kanpo dagoen salaketa da.

Bestalde, esango dugu Baleikeko lan taldea osatzen dugun kideon artean (Gazte Batzordean bezalaxe) ideologia ezberdinetako jendea gaudela, eta ez dugula inoiz gure aldizkaria helburu politikoekin erabili. Hala ere, gogorarazi nahi diogu alkateari, HB Zumaiako bigarren indar politikoa denez normala dela bere iritzia aldizkarian azaltzea, batez ere informazioa kontrastatu nahi badegu *“objetibotasunaren”* bila, zuk diozun bezala, oposizioan dagoen alderdi bakarra baita.

7.- Bukatzeko esan beharra daukagu kontradikzio bat iruditzen zaigula batetik aldizkaria *kriminalizatu* nahi izate hori eta bestetik *“aldizkari hau ateratzeko egiten den lana baloratzen”* duzula esatea.

Ez dugu inongo polemikan sartzeko asmorik, beraz, azalpen hauekin kontua amaituzat jotzen dugu, horrelakorik berriro gertatuko ez denaren itxaropenez. ■



ZUMAI A



AUTO -ESKOLA



* Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
 * Praktika eta azterketak Azpeitian
 * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea
☎ 861018

20750 ZUMAI A



baleizulo

inportaturiko erropa
eta artisautza

Basadi 3 Zumai a



ANE OSA

BETEKA!!

Oraintxe iogurra jan eta oraindik ere asetu ezinean, ... hau marka hau! Egunero horrela ibili beharra ere...! Ontziak garbitzea erabakitzen dut eskuak zerbaitetan erabiltzearren. Garbitu ezezik lehortu ere lehortu ditut baina ezin asetu. Eskoba pasako dut, horrela agian berotu ere egingo naiz ez baita giro sukalde honetan; baina ze demontre nabil estufa piztu gabe?... udarako gordetzen edo?... Berdin dio! Zigarro bat piztuko dut, ezin dut gehiago. Telebista piztu eta etzantzera noa gaur kontatuko dizkiguten txorakeriak entzutera edo egia esanda erakusten dizkiguten "figurinak" ikustera. "Nescafé" omen da une gozoenetarako edaririk egokiena eta ze arraio! kola-kao bat edango dut atzo erosi nituen galleta gozo horiekin lagunduta, zergatik ez?... Gainera liburua hartuko dut, ia bi aste baitaramat duela lau hilabete hasitako liburu hori amaitu ezinean; izan ere, hiru liburu batera irakurtzen ez dela oso praktikoa konturatu naiz. "Revilla" diote "kaja tontakoek", eta revilla ez, baino frigoan dagoen saltxitxoiarekin bokata bat prestatuko dut, eta laguntzeko... Armario txikiaren izkinan gordeta nuen azeituna beltzen potea irekiko dut. Pelikula bat hastera doa, gure amamen garaikoa gutxienean: piratak, neska politikak,... eta patata zorroa irekitzera noa sukaldera. Liburura itxi, mahai gainean utzi eta berriro ere etzantzera noa azeituna gora ta behera dabilela patata bat ahoan sartzen dudan bitartean.

Kalera noa, ezin dut gehiago, hau da beteka hau!!...


Elurra



Joxe Joakin Aizpurua

Elurra egin digu aurtengo neguan azkena noiz egin zun ez daukat goguan egiten duanean egin dun moduan gauza politagorik zer dago munduan? ez dakigu berriro noiz egingo duan

Holakoak gutxitan ikusi nituan bazter denak zuritu zitun segituan Talai-Mendiko maldak jeitsitzerakuan nahiz ta elurra sartu askoren kolkuan aldaparik ez dago gustoko lekuan



ZORUEN KUTXILAKETA ETA BARNIZAKETA.
PARKETA JARTZEA.

Estazioko 12 Tel.: 861412

Antonio Etxabe
Gizonezkoen erropak



Zunbillo 4
Tlf: 861407



Maiaur
olastokia





Apaiz, monja eta praile ugari ibili ziren deabruaren bila.



Sor Poto bere artaldea zaitzen, danak txintxo-txintxo, guapo-guapo.



Ostiralean hurrek Beheko plazan izan zuten festa.



Sor Wali azaldu zen Inaxia bide onera eramane nahian.



Festetan sufritzen duenik ere bada. Mofli gaixoa!



Chernobyleko eraginak Zumaiara ere iritsi ziren.

Ur-gintza sl

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTAKUNTZAK
 GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
 ERAIKUNTZA LANAK - BAINUAK
 SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa, z/g Tel: 148082
 78 Posta kutxa Fax: 148081
 20740 IRAETA - ZESTOA

NIKOL-ENEA
 taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440





Judua, errezatu ondoren, borrokarako prest; ondo lagunduta, noski.

Buitraker Beti Alai taldekoak, dantza egin ondoren, lehertu beharrean.



Txistor, adar horiekin eta horrelako bizipozarekin?

Kolgate, hortzak garbitzeko pasta, tamainu familiarrekoa.

Tirol aldeko hauek egarri latza ekarri zuten.



Pitufoak ere tabernaz taberna ibili ziren.



Angelines, ederki jantzita, zingaraz eta sorginez inguratuta.

KALARI TABERNA JATETXEA

- * Eguneko menua
- * Plater konbinatuak
- * Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA



JUSTA TABERNA EGUNEROKO BAZKARIAK

Erribera kalea 20


Erribera kaleko hutsunea

Lehengo hilaren 6an hasi ziren Patxanga eta ondoko etxea botatzen eta bi egunetan bota ondoren hurrengo bietan zakarrak jasotzen aritu ziren. Jende ugari bildu zen ikuskizun hau ikustera, eguraldi benetan kaxkarra zegoen arren: haize izugarria, euria tarteka... Eusebio Gurrutxagaren etxea izandakoa behera joan zen, eta jende askoren oroitzapenak bertan zeudenez, malkoak ere ageri ziren hara inguratu ziren zenbaiten begietan. Etxe berriak egingo ote dituzte?




Ikusmin handia piztu zen etxearen inguruan.

Hauteskundeetako emaitzak

	1996	1993
Zentsoa	6.561	6.380
Botoak	4.509	4.379
EAJ- PNV	1.400	1.189
PSE-EE	992	961
HB	894	915
EA	635	746
PP	357	264
IU-EB	206	110
Besteak	25	70

Kantauri itsasoa haserre

Inauguratu zutenetik astebete ez zen igaro, eta gure Kantaurik frogatu zuen ezinezkoa dela itsasoa mendean hartzea. Harrizko bloke handi horiek arranpla lanak egiten zituztela zirudien, eta olatuak izugarriko indarrez lehertzen ziren. Horrela, tona askotako bloke batzuk mugitu zituen eta lehengo barrari ere "urratu" ederra eman zion, bospasei bloke behealderaino bultzatuz. Bestalde, zenbait zulo gune azaldu dira barra berriko zoruan, itxura denez behar bezelako asentamendurik ez duelako.



Indar izugarria erakutsi du Kantauri itsasoak.

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

Paki 
Belardenda
OSASUN NATURALA
Erribera kalea 2, Tlf: 143156 - 86 22 44

ONCE


**JOXE
MANUEL**

**Kupoi batzuk
erosi eta ...**

ZORTE ON !!

Kolektore batek Estazio aldeko urak bilduko ditu



Duela gutxi hasi dira Estazio aldean, Basusta eta Pasokoa errekaetako uholdeak galerazteko lanak. Euria egindakoan ur korrante handiak sortzen ziren, eta auzo honetan beti ere arazo izugarriak izan dira arrazoi hau dela medio. Lan hauekin bi errekaetako urak kolektore batekin bildu eta Urola ibaira bideratuko dira. Kolektorearen sare bera erabiliko da ur zikinak ere

biltzeko. Orain eraikitzen ari diren babes ofizialeko etxearen ondoan laster egingo diren besteak ere kontuan hartuko dira, hauetako urak ere behar bezela biltzeko.

OZIO S.L. da enpresa eraikitzailea, eta obra honek ia 100 milioiko aurrekontua du. Kopuru honen %75a Eusko Jaurlaritzak ordainduko du, eta gainontzekoa Zumaiako Udalak.

laburrak

LARRIALDI ZERBITZUA

Iritsi zaigun ohar batek dionez, "Larrialditako sendagile ezak sortu digun kezka eraginda prentsara idatzi bat bidali ondoren, zerbait gehiago egin behar dela ikusirik, martxoaren **9an**, larunbata, **arratsaldeko 4retan Profesional zahar**ren egingo den bilerara deitzen zaituztegu. Ez hutsegin!"

PATROI IKASTAROA



Motora eta antzeko untzien patroi titulua Zumaiian bertan ateratzeko ikastaroa antolatu da. Martxoan hasiko da eta ekainean izango da azterketa. Prezioa 35.000 pezetako da, matrikula barne. Informazio gehiago jasotzeko 861271 telefonora dei dezakezu (Ricardo).

Itzurun
ATEAK

Itzurun
Zuhaitzbidea 2 behea
Tel: 861565 - 143446

IRIBAR
OKINDEGIA - KAFETEGIA
Tif: 143361

Gosarietan prezio bereziak

CARLIN
OFIMARKET
PAPERA ETA BULEGORAKO MATERIALA
ORDENAGAILU ETA INPRESOREN OSAGARRIAK

Txartel hau erakutsiz zure erosketa %5 merkeago

Kale Nagusia 3 Tel./Faxa: 143453

IZETA
orrastegia

Urumea 6
Tif: 862083

ZUMER
TABERNA

Erribera kalea, 2
Telefona: 861125

ZUMAI

Enduñola Zumai

• SUKALDERAKO ALTZARIAK
• ELEKTROGAILUAK
• BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Embera, 8
Telefona: 861694

Baleikek ia 100 mila pezetako galera izan du 1995ean

Iazko balantzea eta likidazioa lein ondoren, 98.000 pezetako zuloa geratu zaio aldizkariari. Udalak ez baititu zenbait gastu kontuan hartu dirulaguntza emateko orduan.

Izan ere, urte amaieran aurkeztutako likidazioan 2.071.000 pezetako diru irteerak zeuden. Udalaren dirulaguntza kontuan hartu gabe 1.617.500 pezeta lortuak genituen (publizitatea, salmentak, aurrezki kutxak...) Udalari diferentzia estaltzeko eskatu genion.

Hasiera batean, **Komiki lehiaketa** (75.000 pzta), urteurreneko **kontzertua** (50.000) eta

Bestelako Gastuen atala (48.000) ez zituztela kontuan hartuko adierazi ziguten Udaleko arduradunek, beraien ustez kontzeptu hauek ez dutelako zerikusirik aldizkariaren funtzionamenduarekin eta ez direlako "beharrezkoak".

Geure aldetik aldizkariaren iharduera osoa hartu behar zela kontuan argudiatu genuen, eta egindako gastu guztiak minimoak eta zentzuzkoak izan zirela. Zenbait eztabaiden ondoren Komiki Lehiaketarena bakarrik onartu zuten, eta ondorioz, 355.000 pezeta jaso ondoren eta aipatutako zuloarekin abiatuko gara aurten. ■

Magnolioa min hartuta



Hemendik aurrera ez da Gipuzkoako magnoliorik haundiena izango.

Justu han inguruan argazkiak ateratzen genbiltzala kraskateko latza jentzun genuen. Magnolioari, elurraren pisuak eraginda, adar garrantzitsuenetakoa hautsi zitzaion. Herri langileek mangerarekin ureztatu zuten ondoren, gainontzeko adarrak arindu zitezten.

laburrak

Minusbaliatuentzat bekak

Mapfre Medikuntza Fundazioak minusbaliatasun fisikoa duten pertsonen Lanbide Heziketarako Bekak emateko deialdia egin du. Informazio gehiago Gizarte Zerbitzuetan emango dizute, bertatik pasa edota 862200 telefonora deituz.

San Telmoak antolatzeke bilera

Festak gainean direla eta, Udalak herriko kultur, kirol eta aisialdiko talde guztiei dei egiten die, jaien egitarau honetan parte har dezaten.

Horretarako bilera bat egingo da Martxoaren 15ean, arratsaldeko 7etan, udaletxeko aretoan. Proposamenak ahalik eta zehatzen eramatea komeni da.

Gazteen bilera

Iaz egin zuen bezela, herriko gazteen proposamen, iritzi eta beharrak zein diren jakin asmoz, Udal Gaztedia Batzordeak bilera bat antolatu du datorren martxoaren 20rako, arratsaldeko 6,30etan, udaletxeko aretoetan. Gazte eta gazte taldeetako ordezkari guztiak gonbidatuta zaudete.

Auto - Konponketak

ELKAR



PEUGEOT

Estazioko kalea

20750 ZUMAIA

Telefona: 860201

DISKO-BAR

Margi



Alai Auzotegia 2.

Jose Mari Azkue, "Kantala-berri" edo "Itturri" zeharo ezaguna da gure herrian. Arrantza du ogibidea, eta oso gazte zela sartu zen mundu honetan, baina beste gauza askotan ere aritu da. Eskola garaian

Joxe Mari Azkue

abenturazale amorratua zela ohartarazi digu. Duela gutxi Mexikora bidaia bat egin du Pello Etxaberekin batera, eta bertako egoerari buruz ere hitz egiteko aukera izan dugu.


"Biziahalizateko edo zergauza egingonuke"

NOIZ UTZI ZENITUEN IKASKETAK ETA ZERGATIK?

Bueno, egia esan hamazazpi urterekin utzi nion eskolara joateari eta gero berehala arrantzan hasi nintzen. Ikastea ez zen nerea! Garai hartan monjetan neskak internatuta egoten ziren, bai, internaduak zeuden. Gu han ibiltzen ginen hormetatik gora igoz, neska haiengana hurbildu nahian. Garai hartan gainera errez igotzen nituen hormak, ez orain bezela! Gogoratzen naiz nola behin 17 urterekin etxetik ihes egin eta Ibizan hamar egun pasa nituen. Han lagun batekin elkartu nintzen, gero ordea bueltatzea erabaki nuen. Bitartean nere familiarteko ugari Bartzelonako Rambletan nere bila aritu ziren. Zumaira iritsi nintzenean autobusetik jeitsi bezain laster amarekin topatu nintzen Gurutze Gorriaren aurrean. Amarekin etxera joan eta ohera sartu nintzen.

ARRANTZAN ZENBAT DENBORA EGITEN DUZU ETXETIK KANPORA?

Antxoatan astebete egoten gara;



Arrantzaren munduak ez omen du etorkizun handirik.

atunetan, berriz, hogeitun egun edo hilabete eskas. Antxoaren tenporada San Pedroak arte izaten da eta handik atzera atunarena. Orain berdeletan gaude eta hemengoak bukatzen denean hiru hilabete egongo gara kanpoan.

ARRANTZALEOK DENBORA ASKO PASATZEN DUZUE ELKARREKIN. ZER NOLAKO GIROA DAGO ZEUEN ARTEAN?

Hobe giro ona egotea! Bestela erdiak ere ez ziren etorriko. Orokorrean ondo konpontzen gara. Ni behintzat saiatzen naiz giro ona sortzen. Txarra da alkarrekin burrukan ibiltzea. Hala ere, beti daude horrelako batzuk.

"Nere ustez, neska ideala, Euskal Herrian behintzat, ama da"

DENBORA ASKORAKO JOATEN ZARETENEAN ERE LEHORRERATZEN ZARETE. ZER GERTATU ZEN VIGON? (BALEIKE 20 ZENB., 31 OR.)

Nik ez nuen parte hartu. Oriotarrak izan ziren. Ni formala naiz. Ez dut uste gertatu zena esplikatzea merezi duenik.

MEXIKON IZAN ZARA OPORRETAN HILABETE BATEZ. ZER INPRESIO EKARRI DUZU?

Ez direla zienportzien. Ez daukatela koefizientea behar bezela. Konplejo asko dauzkate, inferioridade



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19 Telefonoa: 861433
20750 ZUMAIA Fax: 861067

MATTE

ILEAPAINDEGIA

Berezitasuna ileen sendabidean



Amaiako plaza z/g Tlf: 143278



Loitz

- Eskola eta Bulegoko Materiala
- Fotokopiak
- Enkuadernazioak
- Plastifikazioak
- Fax Publikoa
- Aldizkari eta Opariak

Erribera Kalea, 4.
Telf - Fax: 14 34 22.
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

asko ere bai, eta bizkarra ematen dizutenean edozer gauza egiteko kapaz dira. Horren amableak dira azkenean moskeatu egiten zerala.

NESKA MEXIKARREN ETA EUSKALDUNEN ARTEAN ZE EZBERDINTASUN DAGO?

Bizkarretik ikusita garbi ikusten da umetasunik ez dutela pasa. Andre txikiak dira azken finean. Hori hemen ez da horrela gertatzen.

Mexikon gizon batek hiru andre ezberdinen seme-alabak izaten ditu. Hura ikaragarria da!

GURI KONTATU DIGUTENEZ, MEXIKOKO METROAN GERTATU ZITZAIZUEN ZERBAIT. ZURE ERREAKZIOA ZEIN IZAN ZEN?

Pellori kartera lapurtu zioten Visa, osasun txartela, eta noski, dirua eta guzti. Hori ikusi ondoren kontsuladora joatea erabaki nuen nik eta han ibili ginen hamabi egunez jira bueltan paperak Estatu Batuetatik ekarri arte. Izan ere, Pello ez da akkuratzen! Baina han korrupzio ikaragarria zegoen alde guztietan. Jendea pistolekin ibiltzen da eta lapurretak ugari izaten dira.

EUSKALDUNIK IKUSI AL ZENUTEN?

Bai, errefuxiatu batzuekin egon ginen. Euskaldun giroa ere ikusi genuen, tanborrada batean ere atera ginen kozineroz jantzirik.

MEXIKOKO KONTUAK ALDE BATERA UTZIRIK, ZE ESPEKTATIBA DITUZU GEROARI BEGIRA, JOXE MARI?

Ez daukat espektatibarik. Lehengo moduan jarraituko dudala uste dut.

BA AL DUZU FAMILI BAT SORTZEKO NAHIRIK?

Hori patuak esango du, ez? Baina egia esan ez daukat horretarako esperantzarik.

MAITEMINDU AL ZARA INOIZ?

Bai, noski baietz. Baina ez diot kanpoko itxurari bakarrik begiratzen. Ibilia naiz neska potola batekin ere, eta oso gustora gainera. Nere ustez neska bakoitzak du bere enkantua. Denak dute zerbeit.

ZEIN IZANGO LITZATEKE HORTAZ ZURE NESKA IDEALA?


Nere ama noski. Nere ustez, neska ideala, Euskal Herrian behintzat,

"17 urtekin etxetik ihes egin eta Ibizan hamar egun pasa nituen. Zumaira iritsi bezain laster amarekin topatu nintzen"

ama da. Nere etxean ez da sartu neska erdaldunik eta saiatuko naiz ez sartzen. Beno, ez erdaldunak, egia esan, beste kasta bat.

ZERK MARKATU DIZU BIZITZA?

Egia esan "tara" ugari ditut buruan. Egunen batean ilea moztuz gero ikusiko dezute nola daukaten markatuta burua. Batzuk diote txalupa batetik erori nintzen egunetik, ez nagoela erabat "sano", baina nik ez det horrela ikusten!



Zapatista amorratua eginda etorri zaigu Joxe Mari.

JOSEBA OSA
- ITZULPENAK -
EUSKARA-GAZTELERA-
KATALANA-INGELES-
FRANTSESA

Tel/fax: 148065

ekin
ELEKTRIZITATEA

ISTALAZIO ELEKTRIKOAK
ISTALAZIO MUSIKALAK
AKUMULADOREAK
ALARMAK
ANTENAK
PORTERO AUTOMATIKOAK

DENDA: K. Nagusia, 8 - Tell. - Fax: 14 30 97
TAILEERRA: Larretxo, 10 behe 1^a - Tell. 14 34 74
20750 Z U M A I A (Gipuzkoa)


S
DORNUTEGI

ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basaltzi Auzategia, 10 behe
Telefonoa: 862051

SUKALDEKO
ALTZARIAK

20750 ZUMAJA
(Gipuzkoa)



*Kopa eskuan,
txapela buruan
eta ibili
munduan,... eta
bigotia!?*

PENTSATU AL DEZU INOIZ BIGOTEA MOZTEA?

Lagatzen ari naiz. Bigoterik gabe hobeto ikusten naiz baina alperkeriaz ez det mozten.

BAINA ALPERKERIAZ BADA, ZERGAITIK EZ DEZU BIZARRA USTEN?

Zeren musu azpiko bizarrak moztea oso zaila da.

EGUNEN BATEAN BA AL DAUKAZU GAZTAINAK SALTZEN JARRAITZEKO INTENTZIORIK?

Bizi ahal izateko edozer gauza egingo nuke. Lapurtu ere bai. Izan ere, gaur egun ez al dira dirudun ugari lapurretan aritzen?

Arrantza kontua ez dihoa batere positiboki, ez dakit noiz arte jarraituko dudana atera duten lege berria dela eta. Baina baleike egunen batean berriro gaztainak saltzen hastea, ez dit lotsik ematen.

ZUMAIAN ZER MANTENDUKO ZENUKE, ETA ZER ALDATU?

Aldatu, alkatea azkar asko!

"Mexikarrek konplejo asko dauzkate, inferioridade asko ere bai. Horren amableak dira azkenean moskeatu egiten zarela"

Mantendu berriz, hainbeste gauza mantenduko nituzke! Giroa mantenduko nuke.

INTSUMISIOAREN AURREAN, ZER JARRERA AGERTZEN DUZU?

Nere ustez soldaduzka egitea ez da zaila, edozeinek egin dezake. Zailagoa da intsumiso izatea.

Nik soldaduzka egin nuen, baina esan beharra dago intsumiso sartzen direnak arrautzak dauzkatela! Ez daukate meritu gutxi.

ZE ERATAKO MUSIKA DUZU GUSTOKOEN?

Jazza ikaragarri gustatzen zait, baita Rock and Rolla ere. Hitz batean, Beatles.

Albert Plá ere gustatzen zait eta bere kontzerturako sarrerak ditut.

BUKATZEKO, EGINGO AL DIGUZU ZURE BIZITZAREN LABURPENA HITZ GUTXITAN?

Azkar dihoala. Egiten ditudan gauzak, egindako gauzak... hala dihoaz besterik gabe. ■

Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2



**OPTIKA
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057
20750 ZUMAIA



TXUIK TXVIK TXUIK TXUIK TXUK TXUK TXUKI TXIKI




KUESTIYUBA 2

#

ROMATEL & CARBALLO ASS. 1996



NIKI NIKI NIKI NIKI NIKI NIKI NIKI NIKI NIKI NIKI



#

AAAAH!





... 9



ROMA TET & CARBALLO ASS.


1996



TTRRRRRRRRR... !!



TATA TA TX AAAAAN!!..



FLASH!



Izare zuriz jantzia



Ihauterien amaieran Zumaia berak ere mozorrotzea erabaki zuen. Otsailaren 21an izare zuri batek estaltzen zuen dena. Hamaika urte ziren azken aldiz Zumaia erabat elurtu zuela, 1985ean ere elurte izugarria izan baikenuen. Horrelakoak oso tarteka izaten direnez, herria nola zegoen ikusita, aldizkarian atal berezi bat eskeintzea merezi zuela pentsatu genuen. Horregatik, kamara hartuta batera eta bestera ibili ginen, herriko txokoen itxura ikusgarria eta kalean zegoen giro alaia bildu asmoz.



TXOKOA
T
B
E
R
N
A



Artadi
Auzoa
86 21 89


*Jesuskoa
Faletxea*



Aplua 86 17 39 • Urtia Zumaia



KABI
TABERNA - ZUMAILA
Tfnoa: 143379



SAGARDOTEGIRA

IRTEERA!!



Martxoaren 23an



ARRAIN ETA
MARISKOAK

MARES


7 MARES IZOZTUAK

BARAZKIAK
ETA
AURREZ
PRESTATUTAKO
JAKIAK



Juan Belmonte 6
ZUMAIA

Tnoa: 860415



Haur eta gazteak
jolasean ibili ziren
elkarri bolak botatzen,
aldapan behera
irristatzen....
Ondorioak? Batek
klabikula hautsi zuen,
eskumuturra beste
batek, kolpeak... baina
umore ona!



SOLOZABAL AUTOESKOLA



Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416



Erribera kalea Telefonoa: 861523

ZUMAIA



**MARIASUN
ALBERDI**

Normal, beste tokitan bezela.
Aurpegia jarri behar da.



**LARRAITZ SESMA
(BAKARNE ALBERDI)
(AITZIBER IGOA)**

Normalian herriko mutiletan ez zea fijatzen.
Lehenengo aldiz ikusten dituzunetan fijatzen zea. Hori
bai, gure mutilak zumaiarrak dira, eta oso majuak.



**MARI KARMEN
ARISTI**

Gogoa izan eta saiatu ezkerro ez
da zaila. Errexa da.



MAITE DOMINGUEZ

Herrri bertan izanda zailagoa da,
jende ezaguna izanda lotsatu egiten
zera-ta.



ESTI MORA

Mutil guapoik ez daonez,
zaila da. Inun ez dago mutil
guapoik, gainera.



**GOIZANE
GOIKOETXEA
ANE ETHECOPAR**

Eztakitx zegatik baina errazagua da hemen.
Eibarren mutil gitxi dauz eta herri handixaua danez
konfiantza gutxixau dogu. Gainera hemengo mutilak
politaguak zarie.



KRISTINA ETXABE

Oso errexa da. Begiarekin
"klikk" egin eta nahikoa da. Ja, ja, ja.

ENTRA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaia Plaza 15
Tlf: 862458



ARRADI - ZUSTATEGUIA, 4-A
ZUMARRI
TEL. 863061

HERRATEGI
URDATEGI



ENTER
INFORMATICA


Baltasar Etxabe kalea z/g
Tlf: 861175 - Faxe: 860550



TABERNA

Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

JUARISTI JATETXEA



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 Tlf: 861853

Martinak ala pottorrak?

Zumaiako Natur Taldea

Otsaileko arratsalde euritsu batean txorizaleak, ohizkoa den bezala, tabernaren berotasunean bildu ginen. Betiko gauzei buruz hitz egiten ari ginela, agure bat sartu zen tabernara, ubarroiak txitoak eduki zituztela esanaz.

Ai, zein ausarta den ezjakintasuna! Harrituta geratu ginen; elkarri begiratu eta zer egin ez genekiela utzi gintuen agurearen berriak. Bapatean konturatu ginen hori ezinezkoa zela, ubarroi handiak ez baitu umerik izaten gure kostaldean.

Hala ere, kaira abiatu ginen buruan geneukan susmoa baieztatzeko. Halaxe izan zen, agureak aipatu zituen hegazti txuribeltz txiki haiek martinak edo pottorrak ziren. Teleskopioarekin begiratu ondoren martinak zirela konturatu ginen.

Pottorrak ala martinak? Hau da komeria. Zer ote dira Martinak? Adituak ez zarenontzat martinak pottorrak dira, baina guretzat ez



Pottorra (Alca torda).

Martinak moko luzea eta fina du; pottorrak motza eta lodia



Martina (Uria aalge).

dira gauza bera.

Bai, konportamendu bera dute, kolore berdinekoak dira, tamaina berekoak; ubarroiak bezala ura dute gogoko, eta hauen antzera janaria murgilketa bidez lortzen dute, propulsiarako hegoak erabiliz. Non dago orduan beraien arteko desberdintasuna?

Mokoan dago kakoa. Martinak (Uria aalge) luzea eta fina du; pottorrak (Alca torda), berriz, motza eta lodia.

Hemendik aurrera norbaiti ubarroiak txitoak eduki dituela entzuten badiozue, badakizue zer erantzun eta mesedez argitu iezaiozue kontua.

Hegazti hauei loturik, aipagarria da egunotan Wales inguruan hondoratu den petrolio-untziak egin duen petrolio isurketa, bertan baitaude bi hegazti mota hauen (martinak eta pottorrak) Europako kolonia ugalketarik garran-tzitsuenak. Lotsagarria da, eta gaur egun horrelako hondamendiak gertatzea salatzen dugu. ■



GILANO

LIBURUDENDA
Paperdenda
Prensa
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuadernazioak
Liburuak
Baltasar Etxabe 7
Tlf: 14 31 91



ZURICH

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1
Tel. Faxa. 860169

Alberdi
GIZONEZKOEN MODA



Erribera kalea 6
Tlf: 861155



BASUSTA
ERRETEGIA

M^o Dolores Aizpurua

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefona: 862073

20750 ZUMAIA

ZALLA

Taberna - Erretea
PLATER KONBINATUAK

OTARTEKOAK

OILASKO ERREAK

San Pedro, 4 - Zumaiak Tlf: 862387

Galdona



burdindegia

Mendaro mariñela, 1

Juan Belmonte, 15

Tlf: 86 11 17 / 14 33 46

Fax: 861330

20750

ZUMAIA

(Gipuzkoa)



ANTIMILITARISMOA

EZTABAIDAGAI

Gurutze Gorriko gazteak, parrokiakoak, Gu Ez Goaz taldekoak eta Gazte Batzordekoak elkartu ziren Oxforden otsailaren hasieran. Antimilitarismoak Euskal Herrian eta, batez ere, Zumaian duen egoera izan zuten hizketagai.

HARITZEN EPAIKETA

40 lagun inguru bildu ziren otsailaren 8an izan zen Haritz Romanelliren epaiketan. Epaiaketak, ohi bezala, bi minutu besterik ez zuen iraun eta jaso duen sententzia ere betikoa: 2 urte 4 hilabete eta egun batekoa.



MANIFESTAZIO

INTSUMISOA

Ihauterietako igandean manifestazioa egin zen intsumisioaren alde. 100 lagun inguru bildu ziren, batzuk militarrez jantzita eta txilipito eta guzti. Herriko kaleetan ibili ondoren zubi txikian errepedea moztu zuten, hamar minutuz.





ERROTA
OPIL - OKINDEGIA

Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68
Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01
ZUMAIA



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
ZUMAIA

Telefona: 862206



ARGIA

Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
ZUMAIA

Zumaiako XII. Herri Krosa hilaren 17an

Aurten nagusien ibilbideak aldaketatxo bat izango du

Hemen degu berriro ere, ohitura bihurtu zaigu herri krosa. Urte honetakoa korrituko dena hamabigarrena da, eta antolatzaileek azaldu dutenez, inoiz baino partehartzailerik gehien izateko itxaropena dago.



Zumaiarrak gogor ari dira prestatzen.

Aurten ibilbidean aldaketa bat egongo da. Orain arte, irteera nahiz helmuga puntuak polikiroldegi ondoan izan ditugu. Baina Narrondo ibaian egiten ari diren konponketak ikusirik, eta ondorioz N-634 errepideko karril bat itxita dagoela kontutan hartuta, puntu horiek Txomin Agirreko moilan (arranpla parean) kokatzea erabaki da.

Korrikalariak puntu hortatik, Talai-peraino joango dira; hortik Juan Belmonte, Amaia Plaza eta azkenean Pulpora iritsiko dira. Hau da egin beharreko itzuli txikia.

Hortik berriro Talai-pera, gero Itzurun igo, San Telmo, Erribera kalea, zubi txikia, Basadi eta

Estaziotik Gernikako parkera joan, hemendik berriz zubi txikia zeharkatuz, Pulpora iristeko.

Ibilbide hau egin ondoren, emakumezkoek beren proba hor amaituko dute, eta gizonezkoek azken zirkuitu honi beste itzuli bat eman beharko diote. Guztira, 10,200 kilometro.

Kros honetan parte hartu nahi duten guztiek, 600 pezeta ordainuz honako toki hauetan eman dezakete izena: **Axier Kirolak** (tlf: 862206), eta **Kutxan** (kontu korrontearen zenbakia: 001005186.0). Zumaiarrei izena aurrez ematea eskatzen zaie.


Probak goizeko 9.15etan hasiko dira Benjamin mailako lasterketarekin. Ondoren, Alebinak, Infantilak, Kadeteak, eta 10.30etan Jubenil, Junior, Senior eta Beteranoen

lasterketa nagusiari emango zaio hasiera. Irabazleak, gizonezko eta emakumezkoetan 25.000 pezeta poltsikoratuko ditu.

Errekor berria jartzea lortzen duenak 40 mila pezeta jasoko ditu

Antolatzaileek azaldu dutenez, jende asko ari da izena ematen. 1995ean ez ziren 500etik pasa lasterketa nagusian parte hartu zuten korrikalarien kopurua, baina orain zifra hori gaintitzeko esperantza osoa dute. Ia ba horrela gertatzen den.

Beste edonolako informaziorik jaso nahi izanez gero, Polikiroldegira jo dezakezue, edo bertako telefonora dei egin: 862021. ■



gooiy
HAUR JANTZIAK
Amaia plaza, z/g
Telef. 860959
ZUMAIA

agustin
HARATEGIA
URDAITEGIA
Itzurun Zuhaitz-bidea, 1
20750 ZUMAIA Telefona: 862430

julio curiel
GF
PELLAJERO
GIZONEZKOENTZAT
ILE-APAINDEGIA
Erribera kalea 23



Azken txanpan

Azken emaitzak

AUTOS ZUMAIA 2 - BUITRAKER 5
 IPURBELTZ 4 - INPERNUPE 3
 EVERIN 3 - ZUMEA TABERNA 2
 HIL TA PAKIA 4 - XEMETAXIO 0
 INPERNUPE 0 - AUTOS ZUMAIA 3
 HIL TA PAKIA 6 - ZUMEA TABERNA 5
 KABI TABERNA 7 - MENDI-ONDO 2
 XEMETAXIO 1 - EVERIN 0
 KABI TABERNA 3 - URBERU SAGAR. 2
 MENDI-ONDO 0 - AGINAGALDE 6
 AUTOS ZUMAIA 3 - IPURBELTZ 2
 BUITRAKER 6 - INPERNUPE 3
 URBERU SAGAR. 4 - MENDI-ONDO 6
 EVERIN 6 - HIL TA PAKIA 1

Hurrengo partiduak

MARTXOAK 9 12,30
 BUITRAKER - IPURBELTZ
 MARTXOAK 10 12,30
 AGINAGALDE - KABI TABERNA
 ZUMEA TABERNA - XEMETAXIO
 MARTXOAK 23 13,00
 KOPAKO FINAL-ERDIAK
 MARTXOAK 24 12,30
 LIGAKO FINAL-ERDIAK

Hil honen amaieran jokatuko dira txapelketa interesgarri honetako final-erdiak. Kopan lau talde bakarrik daudenez, oraingo partiduek zein zeinen aurka arituko den erabakitzeko besterik ez dute balio. Ligan, berriz, 4 taldek egingo dute aurrera eta beste lau kanpoan geratuko dira.

B taldetik Aginagalde eta Kabi dira nagusi, eta lehen postua azken partiduan jokatuko dute. A taldean Everin taldea sailkatu da, eta beste taldea Xemetaxio edo Hil ta Pakia izango da.



Kros Herrikoia

ARRITXU IRIBAR

Hamabigarrena badator. Martxoaren 17an jantziko baita Zumaia korrikalariz. Urteak pasa ahala, kros honek ospea irabazi du, baita maila on bat ere, antolatzaileen lanari esker eta parte hartzaileen kopuru eta kalitateari esker ere bai.

Markak ontzeko izaten omen dira baina iazkoak gaintitza, erronka handi xamarra dirudi. Parte hartzaileei dogokienez, iaz, helduen lasterketan 425 korrikalari izan ziren, hurren lasterketan berriz 300 baino gehiago izan ziren ausartak. Iaz Kamel Ziani eta Joxe Apalantza izan ziren irabazleak, biak ere, izen handiko korrikalariak. Bi atleta hauek gainera, Juanan Legorbururen laguntzaz marka egin zuten, ibilbidea 30 minutu eta 51 segundutan eginez. Horixe aurten ondu beharrekoa. Mutiletan 327k amaitu zuten proba eta zumaiarren artean, Jesus Mari Alvaro izan zen azkarrena; 25. amaitu zuen. Neskatan 57k lortu zuten helmugara heltzea. Guztietan azkarrena, parte hartu zuen getariar bakarra izan zen, Usoa Sorazu hain zuzen ere, Mila Garciak amaituz herritarren artean aurrena (18.).

Hauek dira datuak, aldatu nahi dituenak martxoaren 17a bitartean gogotik izerditu beharko du, puntu-puntu izateko karrera egunean, baina ez ahaztu kros herrikoia dela eta garrantzitsuena parte hartzea dela.

San Pedro pala txapelketa

Martxoaren 24ean emango zaio hasiera paleta gomazko bigarren San Pedro sariari. Zumaiako kirolzale guztiei egiten zaie dei, eta azpimarratzekoa da aurten herrikoek bakarrik hartu ahal izango dutela parte.

IZENEMATEA: Frontoiko tabernan.

EPEA ETA BILERA: Martxoak 22an, gaueko 10etan.

PREZIOA: 2000 peza bikoteko.



Basadi Auzategia, 10-A atzean Telefonoa: 862228 ZUMAIA

xirula



ARGAZKI ETA BIDEO
 ERREPORTAIK
 ERREBELATZEAK
 KAMARAK
 MUSIKA

TELEBISTA
 BIDEO
 HI-FI

Erribera kalea, z/g 20750 ZUMAIA
 Tel. 861705




Babe, el cerdito valiente (1995)

ZUZ.: Chris Noonan
AKT.: James Cromwel,
Majda Szubanski

Babe artzaia izan nahi duen txerri txiki bat da. Txerritxo hau ez dago batere konforme gizakiak berari eta beste txerri guztiei eman dien paperarekin, eta horrela, bera bizi den etxaldea hankaz gora jartzen du. Babe ez da etxaldeko animalia berezi bakarra: bere ondoan ahate anorexiko bat du, honek badakielako bere familiakide guztiak gizakiaren sabelean amaituko dutela. Bien aurka etxeko katua dago, benetan zitala bera.

Filme honetan animalia guztiak benetakoak badira ere, aho mugimenduak eta abar egiteko Jim Hensonen enpresaren laguntza izan da; bai, Epi eta Blasen egileena. Pelikula egiteko 40 txerri erabili dira, filmea egiten ari ziren heinean animaliak hazi egiten baitziren. Filme onenaren sarirako izendatua dago Oscarretan.

Zine kritikak	EGIN	DV	Egunkaria
Babe, el cerdito valiente Zuz: Chris Noonan	—	☆☆☆	☆☆
Goldeneye Zuz: Martin Campbell	—	☆☆☆	—
Algo de que hablar Zuz: Lasse Halstrom	☆☆	☆☆	—



- Emon biar yako
- Fadoa Coimbran
- Marasmus Femeninus
- Taupaka barrenetik
- Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak
- Pedrotxo

IRAKURKETARAKO AUKERAK

Hemen dezue Udal Liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat. Dasta eta gozatu arazu ahal dezun neurrian

Euskaraz

- Iñigo Aranbarri*
- Juan Garzia*
- Patziku Perurena*
- Karlos Santisteban*
- J. Sarrionaindia*
- Martin Ugalde*

Gaztetxoentzat

- Hego itsasoetako
- Lobo negro, un skin
- Malos pasos
- Jack London*
- Marie Hageman*
- Manuel L. Alonso*

Gaztelera

- El mundo perdido
- Nido de víboras
- Después de la conferencia de Rio
- El misterio del solitario
- El cielo y la tierra
- Ahí te quedas
- Matando dinosaurios con tirachinas
- Un cadáver en el coche
- Patagonia Express
- La nada cotidiana
- El premio



- Michael Crichton*
- Linda Davies*
- Hilary F. French*
- Jostein Gaarder*
- Le Ly Hayslip*
- Terry Macmillan*
- Pedro Maestre*
- Justin Scott*
- Luis Sepúlveda*
- Zoé Valdés*
- Manuel V. Montalban*



AIZPURUA

LIBRERÍA
R U D E N D O P A R I A K

Aita-Mari Auzategia, 17
Telefonoa: 861569
20750 ZUMAIA



ERTZ INFORMATIKA

Mendaro Martiñela 3

TEL: 14-33-95

Zure INFORMATIKAKo Denda

- ORDENAGAILU P.C
- INPRIMAGAILU
- CD-ROM
- KRISTALEZKO PANTAILAK
- DISKETTEK



Diapositiba emanaldiak

Forondan arratsaldeko **7,30etan** Marpol bikoteak "Tierra Santa" izeneko emanaldia eskainiko digu, bi zatitan.

22an "El País del Libro" izenburuarekin alderdi historikoa ikusiko da.

29an kristautasunaren alderdia ikusiko da, Loiolako Inazioren pausoen atzetik.

Martxoak 22 eta 29



ESKULTURA LEHIAKETA



Zumaiako Udalak egin berri den Itsas Muturrean eskultura bat kokatzeko lehiaketa bat antolatu du. Nornahik har dezake parte eta nahi adina lan aurkeztu.

Sari nagusia 4 milioi pezetakoa izango da eta 250.000 pezetako bi akzesit ere emango dira. Lanak aurkezteko epea apirilaren 30ean amaitzen da.

Argibide gehiago nahi dituenak Udaletxeko Hirigintza sailera jo beharko du edo 860250 telefonora deitu.

XIII. SAN TELMO SARIA

Euskararen erabilera bizkortu eta suspertzeko Udalak literatur lehiaketa hau antolatu du.

Hiru maila ezberdin bereiziko dira. Lehenengoan OHOk 3, 4 eta 5. mailtako ikasleak sartuko dira. Bigarrenean 6,7 eta 8. mailtakoak. Eta hirugarrenean 15 urtetik gorako gazte eta heldu oro.

HITZ LAUZ eta **OLERKIAN** gaia eta luzera libreak izango dira. **BERTSO PAPERETAN** 2, 3 edo 6 bertso egin beharko dira mailaren arabera.

Epea **martxoaren 15ean** amaitzen da, eta helduen lanak udaletxean aurkeztu beharko dira. Helduen sariak euskal liburu eta diskak erosteko 5.000 pezetako txartelak izango dira..

Bandaren kontzertua

Martxoaren **31n**, eguerdiko 12,30etan Aita Mari zineman herriko bandak kontzertua eskeinitiko du..

Abesbatzak

SAN PEDRO eta **ALBOKA** (Lasarte) abesbatzen emanaldia izango da. martxoak **23an**, 8,15etan Parrokian.

MINIMAL ART ERAKUSKETA (ikustaldi gidatua)

Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean erakusketa interesgarria antolatu dute arte mota honi buruzkoa. Obra esanguratsu eta nabarmenak bilduko ditu erakusketak, batez ere 60ko hamarkadan sortutakoak: Catl Andre, Donald Judd, eta abar. Obrak Europa eta Estatu Batuetako museo eta bilduma pribatuetatik ekarriak dira.

Zumaiatik Arte Taldeak antolatuta, eta kultur batzordearen babesean **IKUSTALDI GIDATUA** antolatu da, martxoaren **22an**, arratsaldeko 4etan (Zumaiatik 3retan irtenda). Forondan eman behar da izena, 19a baino lehen.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA AUTOAK

Juan Belmonte, 45
ZUMAIA

Telefona: 861485
Fax: 143143

E G U Z K I
PUB
KOKTEL BEREZIAK
Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

ITSASKI
supermerkatua



Urumea kalea z/g
Zumaia

Badatorkigu berriro ere martxoaren 8a eta urtero bezala emakumeon eguna izanik, leku guztietatik emakumeei buruzko milaka notizia eta ekitaldiren berri ematen digute, egunerokotasunetik at, zenbat emakume heldu den postu garrantzitsuetara, geroz eta gehiago hartzen dugula parte politikan (sinbolikoki behintzat), eta abar. Hau dela eta ez dela gai bati buruz nahi nituzke gogoetak egin:

EMAKUMEA ETA ELKARTEAK.

Orain 100 urte bezala

Euskal Herri osoan jokaera berdina jasan arren, gure herriko elkarteei zuzenduko naiz bereziki, hauek baitira ezagutzen ditudanak. Zazpi elkarte datozkit burura: Txepetxa, Aita Mari, Inpernupe, Pulpo, Anade, Itxas-Gain eta Inda-Mendi. Guzti hauetatik batean bakarrik onartzen dituzte emakumeak bazkide moduan. Inpernupen. Beste guztietan emakumeek sarrera posible izan arren, beti ere sozioren bat ezagutzen baldin badugu, ez du balio laguna, anaia edo gizona izatea sozio

aurrean ez baldin badago, ez daukagu partaide izateko posibilitaterik; garbiketetako arduradunak izan ezik, noski.

Bakarren batean posible dugu sukaldean aritzea, beti ere bazkideren bat baldin badago edota beste batzuen begirada zorrotzen pean.

Etxean sekula egiten ez dituzten zereginak eginez, harro-harro, zeinek albokoak baino marmitako edo olarru-zopa hobea eginez ujuka. Emakumeei, lasai! eseri eta "behingoz" disfruta dezaten aldarrikatuz, Mari! Kafea ere nahi al den?


Elkarteez gizonezkoen txoko pribatu izaten jarraitzen dute.

Zergatik hainbeste ezezko emakumeen partehartzeari? Zeren beldur dira?

Hainbeste berdintasun aldarrikatzen dituzten guztiei luzatzen diet galdera. Norbaitek erantzungo balu eskertuko nioke.

Benetako berdintasun baten alde, martxoaren 8ko erreibindikazio guztiak urte osora zabal ditzagun beste ehun urte pasa baino lehen.

XARA



EKITALDIAK

Martxoak 6

Inpernupe kultur elkarteak antolatuta, Begoña Muruagaren HITZALDIA: "Edertasunaren mitoa". Oxford-en, arratsaldeko 7,30etan.

Martxoak 7

Gizarte Zerbitzuen Batzordeak antolatuta, antzerki emanaldia Aita Mari zineman, gaueko 10etan.

"ZERGATIK PANPOX?" Agerre teatroaren eskutik.



Martxoak 8

Inpernupek antolatuta, EMAKUMEEN AFARI IREKIA bertako elkartean. 1.000 pezeta. Zumaiaiko emakume guztiak gonbidatuta daude.

Martxoak 21

Emakundeko zuzendaria den Txaro Arteagak HITZALDIA emango du, 95ean Pekinen egindako konferentziari buruz. Gizarte Zerbitzuek antolatua.

KOSTA



GAS

GAS ETA
KALEFAZIO
INSTALAZIOAK

Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

expert



ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua

expert eta
Repsol-Butanoren
Banatzaile Ofiziala

GURE TXOKOA
TABERNA

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

Basque Dub Foundation

Lehengo urteko abuztuan heldu zen gure eskutaraino **Sustraidun Roots** izenburua zeraman maketa bat. Londres bertatikan bidalia, **Basque Dub Foundation** erakundearen sinadurapean kaleraturik zetorren zinta hark gure jakinmina berehala piztu zuen. Gauza bat argi zegoen, maketa honek bere barruan Reggae soinuak zituela, eta Benito Lertxundiren "*Txori txikia*" bertan azaltzen zela.

Kreditoak irakurtzerakoan ohartu ginen Basque Dub Foundation honen bultzatzailea **Iñaki Yarritu** bilbotarra genuela eta baita ere Bilbo bertako Massive Promociones-eko kide bat dela. Maketaren barneko orrialdetan azaltzen den bezala, B.D.F Bilbon sortutako musika kolektibo bat da, **Sustraidun Roots** hau beraien lehen lana delarik. Bertan, Iñakik sortutako melodien ondoan, Jamaikar klasikoak diren zenbait doinuen moldaketak ere ageri dira, eta ez ahaztu Benitoren "*Txori txikia*" horren reggae dub bertsioa.

Abesti guztiak reggae lasai eta militanteenean doaz

DUB hitzaren jatorriak Jamaikar uhartean galtzen badira, bere esanahiak, kantak lantzen dituzten musikariekin baino gehiago,

Sustraidun Roots

1. Fade Away Dub

2. Tributo A King Tubby

3. Sustraidun Roots

4. Sustraidun Steppers Dub

5. Txori Txikia Dub

6. Praises Dub

B D F
Basque Dub Foundation

estudiotako teknikariekin zerikusia du. Bertsio hauek, aurrez grabaturiko kanten base erritmikoak (baxu eta bateria) oinarritat harturik, kantaren melodia, birnahasten ari denaren gustora sartzen da, efektu bidez apainduz. Jatorrizko lurraldetan 60. hamarkadan asmatu zenetik era askotako musikara pasatu dira grabatzeko teknika txoro eta indartsu hauek, batez ere dantzarako pentsatuak diren erritmo eta musketan. Adibidez, *Disko* deritzona, *Jungle* berrian, *Funkyan* edo *bakalau* ditxosoan. Reggaearen kanta bakoitzak bere Dub bertsioa duela esan ohi da, baita berez instrumentalak direnak ere.

Maketa honetan Iñakirekin batera parte hartu duten musikarien izenak, bertan aurkituko den

kalitatearen argibide zuzenenak dira: Dub Judah, Winston Rose eta Henry Souca. Baina lan honen serio-tasunaren ardatza lana bera osatzen duten sei kanta dira. Aipatzekoak, "*Tributo a King Tubby*", izen bera zuen DUB estiloaren sortzaileari eskeinitakoa eta "*Sustraidun Roots*", azken hau Jamaikar musikaren sustraietan oinarritua dagoena, bere Dub bertsioaz lagundurik. Iñakiren konposaketa bat.

Era askotako musketara pasa dira grabatzeko teknika txoro eta indartsu hauek

Abesti guztiak reggae lasai eta militanteenean dihoaz, soinu on eta goxo batez ere lagundurik. Martxoak 16an Basaurin izango da zuzeneko Dub ekitaldi batean (lehengo aldiz Euskal Herrian), eta bere ondoren Mad Profesor arituko da, munduko soinu teknikarien artean hobere-netariko bat. Maketa hau ez da soilik reggaea jarraitzen dutenentzat, munduko musikak edo eta antzerakoak entzuten dutenentzako ere aproposa da. Aste Santurako izango da B.D.F.-en lehen diska osoa kalean. Ale gehienak Japonia eta Europara joango diren arren hemen ere salduko da, beraz adi bitxikeria honekin. ■



TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

Telf. 14 30 85
Fax. 43 06 37

JEMAR

LOREDE NDA

LANDAREAK
LOREAK

HAZIAK
ZERAMIKAK

1 Telefonon: 860375
20750 ZUMAIA



Motxian hi!

Nor: Maritxu Zalla
Zer: Polikiroldegiko garbitzailea


Kontu-kontari

- NONGOTARRA ZERA?
- IZATEZ ITZIARTARRA. URTE ASKOAN ARROAN BIZI NINTZEN, ETA DUELA HOGEI URTETIK ZUMAIAN.
- NOIZTIK ZABILTZA LAN HONETAN?
- URRIAREN 4AN HAMABI URTE BETEKO DIRA.
- KIROL GOGORRA AL DA POLIA GARBITZEA?
- HASIERA BATEAN HALA ZEN, BAINA ORAIN EZ. ESAERAK DION BEZELA "GOGOKO TOKIAN ALDAPARIK EZ".
- IZERDI USAIA KENTZEKO ZER?
- BA UR ASKO, JABOIA ETA LEJIA.
- ZEIN DEZU KIROLIK GUSTOKOENA?
- EGIA ESAN, FUTBOLA EZ DET BATERE ULERTZEN, ETA ESKUBALOA ERE OSO GUTXI. ESKUPILOTA DET GOGOKOENA.
- NORK IRABAZIKO DU FUTBOLEKO LIGA?
- ERREALA ONDO XAMAR DABILELA ENTERATU NAIZ ETA EA BERAK IRABAZTEN DUEN!
- GUSTOKO MENU BAT?
- ANGULAK ATSEGIN DITUT.
- ZER DAGO MARITXUREN ITURRIAN?
- URA.
- MR PROPER, TENN, XANPA.. ZEIN DA ONENA?
- EZ DET INOR ERE EZAGUTZEN.
- 200 MILIOI TOKATU EZKERO ZER EGINGO ZENUKE?
- SEMEEN ARTEAN BANATU. ETA NERETZAKO ZERBAIT GORDEKO NUKE.
- NORTA JOANGO ZINATEKE BIDAIA BAT TOKATUZ GERO?
- BENIDORM EDO TORREMOLINOSERA.
- ELURRA GUSTATZEN AL ZAIZU?
- IKARAGARRI. ZUMAIAN EGIN ZUENEAN, ASKO GOZATU NUEN.

GOSEAK EZ DU TXANTXARIK!!

Etxekoandre bat joan omen zen Debara trenez han ahaidekoak zituela eta gazta eder bat debalde etxeratzeko asmoz. Gazta eskuratu, mantalak barrenetik zeukan patrikan sartu eta trenean etxerako bidean: "Hau usain ederra! Beno... pusketa txiki bat jango diñat, bai, etxean jan behar detan zatia... Zazpi gaitun, ba..." Eta mauka-mauka triangelu ederra barrura! "Beno gure txikia ez den oso gaztazalea eta... ". Arruara ailegatu ordurako gaztaren hiru laurdenak janda zituen!! "Ai ene! Zer egin diñat!... Eta orain zer?... Eta nire gizonak zer esango ote du". Eta gehiago pentsatu gabe gazta osoa jan zuen.

--Hau suerte txarra Joxemari!. Gazta bila joan eta gaztarik ez! Eskerrak txistor zati hau (patrikatik ateraz) lortu detan, bestela alperrikako biajea!



ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IRAKI GARMENDIA MENDIZABAL
- ALBAITARIAK -

Basadi, 7 behea
20750 ZUMAI
Tel. 143310

LARRIALDIK
-24 orduetan
-Zeure etxean
-Telef. 900-282828
Abonatu zbkia:247790

ITZURUN KIROLAK

Amaiako plaza, 13
Telef. 860758
20750 ZUMAI

BIZKOR FOTOKOPIAK



-Enkuadernaketak
-Plastifikatzeak
-Fax publikoa
-Bulegoko materiala

Basadi 14, behea - Tf: 145120

KLASEAK

Ingalaterran denbora askoan egon ondoren, elkarrizketa klaseak ematen ditut, baita ingeleseko klaseak maila guztietan ere. Prezio interesgarriak. Deitu lasai eta hitz egingo degu. Tel.: 862373



Hi Pello! Gu hemen elurretan eta hi putzuan bestaldean gallunbotan? Ez daukak lotsarik!

AGURRAK

Aupa kojita: sendatuta eta pozik ikusi nahi zaitugu berriro. Makuxtu.

Non dago Wali?
Galdetu iok neskari!

Edinburgonta dagoenta tarita muxuta haundita haundita batta zureta betikota lagunenta partezta.

Zorionak Alazne ta Maia (18!!!) Alaz, hurrengo urtian ere ahaztuko zaigu, zu lasai. Hobe berandu batez baino! Makuxtu.

Jesus-Marta: Felizidades

Pruden, zeoze ikusten al dek? Txixapa.

Kriston, ez takak kresta puta hori mozteko potroik.

Batzuentzat San Balentin otsailaren 19an. Ezta? Saio ta Ira? Makuxtu.

Boti ala Isti, nor haiz?
Boti-Count.

Ixak, bakalau gutxio ta txibi gehio. Kaptain.

Joxe Luiiiiiis, konprak itea!

Aizue Maripilis!

Lotsan arrastuik ez dakazue. Dublinera ze bialtzen dituzue kartak arranplatik putzeinda eo ze? Marikruz eta Esti Korta.

Polako hik daukak suertia! Bizitzako aseguruua gratix!!! Txixapa.

SALEROSKETAK

Eskuko-soinua daukat salgai, erabilitakoa, 120 bajokoa. Interesatuta bazaude deitu 860428 telefonora (Ainhoa) eta prezioaz hitz egingo degu.

Salmenta puntuak

Jesuskoa

Errota (Erribera)

Errota (Basadi)

Errota (J.Belmonte)

Ogi Berri (Amaia)

Ogi Berri (Basadi)

Arkupe okindegia

Aizpurua liburudenda

Olano liburudenda

Loitz liburudenda

Alai janaridenda

Nikol kafetegia

Inpernupe

Zalla erretegia

Foto Gar

Arroa Behea

ZUMAIako
INSTITUTUA
Tfno. 86.08.09



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Ekonomia Departamentua
Departamento de Economía

BIRZIKLAIK IKA STAROAK

LANGILEENTZAT

IKASTAROA	HASIERA	MATRIKULA (Gutxi gora behera)	ORDUAK
AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK OMRON (1)	96/01/22	10.400	40
NEUMATIKA (1)	96/02/26	15.600	60
EXCEL 5.0 WINDOWS (1)	96/03/04	9.100	40
UREN ANALISIA	96/03/04	6.500	25
WORD 6.0 WINDOWS (1)	96/03/11	9.100	40
PLANOEN INTERPRETAZIOA (1)	96/05/06	9.100	40
ORCAD (1) SISTEMA ELEKTRIKOEN DISEINUA	96/05/13	15.600	60
ACCES 2.0 WINDOWS (1)	96/05/13	9.100	40

IKASLE KOPURU MUGATUA

L ehiaketa Goxoa

Herriko Musika Bandako 3 partaide hauetako baten izena asmatzen dezuenen artean **Txapartegi Gozotegiak** emandako tarta eder bat zozketatuko degu. Horretarako **martxoaren 22a** baino lehen utzi beharko dezu erantzuna, sobre batean sartuta Foronda, ONCEko kabina, Foto Mertxe, Aizpurua liburudendan edota Txapartegin bertan. Zorte on!



Hogei erantzunetik gora jaso genituen aurreko hilabeteen, eta ia gehienek asmatu zenuten. **Ricardo Torre** eta **Ander Hormazuri** ziren argazkian ageri ziren "ume gaiztoak".

Zozketa egin ondoren **Jokin Gorostolak** jaso zuen San Markos tarta goxoa. Ez dakigu erantzuna berak bakarrik asmatu zuen, baina tarta zatia ederki jan omen zuen. Besteok badakizue, jarraitu idazten!



ZUMAIAKO HERRI ESKOLA

Geurea!



1995-96 IKASTURTEA

MATRIKULAZIO EPEA
IREKITA DAGO

ZUMEA IKASTOLA 861693
JULENE AZPEITIA 861037